# AGINTARIAK ETA LANGILERIA

## Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

### OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

### 4894

*371/2022 EBAZPENA, urriaren 13koa, Uribeko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari-gerentearena, zeinaren bidez María Pilar Belerda Portela andrea Larrialdietako Gainbegirale kargutik kendu egin den Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Uribeko Erakunde Sanitario Integratuan.*

Apirilaren 3ko 210/2017 Ebazpenaren bidez, María Pilar Belerda Portela andrea Larrialdietako Gainbegirale izendatu zen Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Uribeko ESIko Urdulizko Ospitalean.

Ekainaren 26ko 8/1997 Legea, azaroaren 11ko 255/1997 Dekretua eta aplikatzekoak diren gainerako xedapenak ikusita, Zuzendaritza Gerentzia honek

EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– María Pilar Belerda Portela andrea Larrialdietako Gainbegirale kargutik kentzea, erretiroagatik, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Uribeko ESIko Urdulizko Ospitalean, eta eskerrak ematea egindako lanagatik.

Bigarrena.– Ebazpen honek 2022ko urriaren 13an izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Interesdunari eta Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako ESIari Ebazpen honen berri ematea.

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkez dakioke Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Urduliz, 2022ko urriaren 13a.

Uribeko ESIko zuzendari-gerentea.

EB (170/2021 Ebazpena, martxoaren 30ekoa).

Langileen zuzendaria,
IANIRE LAMIKIZ MOREIRA.